

VUELING AIRLINES, SA. ETA ASEGURUEN ETA BERRASEGURUEN EUROP ASSISTANCE ESPAÑA, SA. ENPRESEN ARTEAN SINATUTAKO BIDIAIKO LAGUNTZA-KONTRATUAREN BALDINTZA OROKORRAK

Hainbat arrazoiengatik baliogabetzea

ASEGURATZAILEA

ASEGURUEN ETA BERRASEGURUEN EUROP ASSISTANCE ESPAÑA, SA. (aurrerantzean EUROP ASSISTANCE), kontratu honetan zehaztutako arriskua bere gain hartuz.

ASEGURUAREN HARTZAILEA

Aseguratzailarekin kontratu hau izenpetzen duen **pertsona fisiko edo juridikoa**, eta hari dagozkio handik sortutako betebeharrak, beren izaerarengatik Aseguratuak bete behar dituenak salbu.

ASEGURATUA

Ohiko bizilekua Europako edozein herrialdetan edo Mediterraneo ertzeko herrialderen batean duen pertsona fisikoa, Baldintza Bereziei lotuta, **VUELING**-ekin hegaldi bat kontratatzen duena eta **EUROP ASSISTANCE**-ri jakinarazten zaiona.

Bi urtetik beherakoak ere aseguratutzat jotzen dira.

ASEGURUAREN XEDEA

Aseguru honen xedea, Aseguratuak **VUELING**-en webgunean kontratatutako aire-txartela eta estrak baliogabetzeko gastuen aseguru bat ezartzea da, Hainbat Arrazoiengatik Baliogabetze Aseguru honekin batera. Polizak ondorengo baldintza orokorrak betez jardungo du. **Kontratutako eta aseguratutako bidaiaren baliogabetzearen ondorioz egon daitezkeen kalte-ordainen likidazioa eurotan egingo da.**

LURRALDE-EREMUA

Poliza honen bermeak Mundu guztirako balioko dute.

BERMATUTAKO ARRISKUAK

Baliobetze-gastuak itzultzea ekarriko duten eta Aseguratuak bere gain hartu dituen arriskuak, jarraian adierazitakoak dira, baldin eta gertatzen badira, aseguruaren izenpetzen den dataren artean eta bidaiari hasi aurretik edo kontratatutako zerbitzuaren aurretik gertatzen direnak eta aseguruaren kontratatzearen ondoren ezagutzen ez zirenak eta Aseguratuari zuzenean eragiten diotenak.

- Beste batek –kide anitzeko profesionala, erakunde publikoa edo enpresa pribatua– egindako frogagiriaren bidez frogatu daitezkeen arrazoi oro, aurretik jakin ezin dena, saihestezina eta Aseguratuaren borondateatik kanpo dagoena, Polizaren Salbuespenetan ez dagoena eta kontratatutako datetan bidaiari egitea nahitaez eragozten duena.

Aireko tarifaren zenbatekoa, tasak eta aire-txartela erreserbatzeko prozesuan erositako estrak itzuliko dira. Kreditu-txartelaren bidez egindako karguak, zergak eta **EUROP ASSISTANCE**-ren aseguruaren zenbatekoa ez dira inolaz ere itzuliko.

Baliogabetzea dakarren arrazoiak Aseguratuari zuzenean eragiten ez dionean, ondorengo egoerak ere estalita geratuko direla ezartzen da:

- Ezkontide, guraso, seme-alaba, anaia-arreba, aitona-amona, biloba, iloba, koinatu-koinata, suhi, errain, aitagarreba-amagarreba edo izateko bikotearen gaixotasun larria, gorputz-istripu larria edo heriotza.

Aseguruaren estalduraren ondorioetarako, honako hauek jotzen dira:

Gaixotasun larria: gizabanako baten osasun-egoera bat-batean aldatzea, mediku batek egiaztatua, gaixoa ohean egotera behartuko duena eta edozein jardueraren profesional edo pribatu etetera behartuko duena.

Istripu larria: Indarkeria, bat-bateko, kanpoko eta istripua jasandako pertsonaren asmatik at dagoen arrazoi batetik sortutako gorputz-lesio edo kalte material oro; horien ondorioek bere ohiko bizilekutik kanpora normal ateratzea eragozten badiote, gainera.

Aseguratuari atxikitako dataren ondoren bat-batean izandako gaixotasunaren edo istripuaren ondorioak barnean sartzen dira eta baita aurrez zeuden gaixotasunen ondorioak, baldin eta aseguratuari atxikitzearen ondorioak modu larrian azaleratu gabe baldin bazeuden. Halaber, gaitz psikiko larriak, estaldura honek bermatutako baldintzen barruan sartzen dira.

Gaixotasunak edo istripuak, aseguratua ez den aipatutako pertsonaren bati eragiten dionean, larritzat joko da ospitaleratzea dakarrenean edo berehala hiltzeko arriskua dagoela ikusten denean.

Aseguratuak ere bermatzen du, erreserba berean izena emana duen eta aseguratuta dagoen laguntzailaren baten baliogabetze-gastuak itzultzea.

ASEGURATUTAKO ZENBATEKOAK

Kalte-ordain guztien muga aire-tarifaren zenbatekoa izango da, aire-txartela erreserbatzeko prozesuan erositako tasak eta estrak gehienez ere erreserbaren %100eko gehieneko mugarekin. Kreditu-txartelaren bidez egindako karguak, zergak eta **EUROP ASSISTANCE** aseguruaren zenbatekoa ez dira inolaz ere itzuliko.

Gastuak itzultzeko eskubidea izateko nahitaezkoa da baliogabetze-aseguru bat kontratatzea bidaiaren erreserban sartutako bidaiarientzat eta, beraz, bakoitzak aseguru horren prima ordaindu behar du.

Ezbeharra badago, bidaiara edo kontratatutako zerbitzuak balio gabetzeko datat gisa hartuko da beti ezbeharraren frogagiritan azaltzen dena (medikuntzostena, heriotza-ziurtagiria, ospitaleratze parte...). Baliogabetzea **VUELING-i** jakinarazi beharko zaio hura arrazoitzen duen gertaera sortzen den unean edo, gehienez ere, ondorengo 48 orduetan. Hala egin ezean, Aseguratuak egokia izango litzatekeen kalte-galera ordaintzeko eskubidea gordeko du baliogabetzea aipatutako epean jakinarazi bada.

BALIOGABETZE-EGOERETAKO IZAPIDEAK

Aseguratuak **EUROP ASSISTANCE-ri** bidaiaren baliogabetzearen berri eman beharko dio **91.514.00.10 telefono-zenbakira** edo **91.514.98.92 fax-era** deituta edo postaz: **Orense kalea, 4, 10. solairua, 28020 Madril, edo vueling.europ.es webgunean sartuta; bertan "On line izapidea" atalean sartu ahal izango da itzultzeko eskaera egiteko, ondoren bidaiara baliogabetzeko arrazoien frogagiriak eta dagozkion fakturak edo egiaztagiriak aurkeztuz; honako honi igorri beharko zaizkio:**

**Apartado de Correos 36316
28020 MADRID**

Ezbehar bat dakarren arrazoi bat baino gehiago dagoenean, gertatzen den lehenengoa, Aseguratuak justifikatutakoa, hartuko da beti haren arrazoi gisa.

Aseguratuak, istripua gertatu eta 7 eguneko gehieneko epean esan beharko dio **EUROP ASSISTANCE-ri ezbeharra gertatu dela.**

Gastuak itzultzeko, aseguruak ezbeharra eragin duen gertaera modu arrazoituan egiaztatzen duten eta eta Aseguratuak eskatzen dizkion datutako dokumentuak eman beharko ditu, adibidez, honako kasu hauetan:

- Gaixotasun eta istripu larria:
 - * Pertsonari laguntza eman dion medikuaren txostena eta haren gaitz edo istripuagatik ezbeharra eragin duena.
 - * Aseguratuarekin ahaidetasun-harremana justifikatzen duen dokumentazioa, hala badagokio.
- Heriotza:
 - * Heriotza-ziurtagiria
 - * Aseguratuarekin ahaidetasun-harremana justifikatzen duen dokumentazioa, hala badagokio.
- Aseguruaren barneko deialdiak: ziurtagiri ofizialak, idatzizko jakinarazpenak.

Gainerako bermeak: ziurtagiri ofizialak, fakturak, salaketak komisarian edo ezbeharraren arrazoiak justifikatzen duen edozein dokumentu.

NOLANAHI ERE, BEHARREZKOA IZANGO DA BETI HONAKO HAU AURKEZTEA:

1. **Vueling-i** egindako erreserbaren kopia, kontratatutako zerbitzuen baieztapenarekin eta banakapenarekin.

2. **Kontratutako hegaldiaren faktura, Vueling-ek egindakoa.**
3. **Txartela ez dela erabili dion ziurtagiria, Vueling-ek emandakoa.**

ASEGURATUAK KEXA AGERTZEN DUENEAN EGIN BEHARREKO IZAPIDEAK

EUROP ASSISTANCE-k Erreklamazio Zerbitzua jartzen du Aseguratuaren esku eta haren araudia www.europ-assistance.es helbidean kontsulta daiteke. Kexak aurkeztu ahal izango dituzte, aurrekoen edozein hartzaile, aseguru, onuradun, kaltetuetako beste batzuek edo kausadunek, webgunearen "Bezeroaren Defentsa" atalean, edo Erreklamazio Zerbitzura idatzi bat bidaliz.

Helbidea: Servicio de Reclamaciones
Cl. Orense, 4 – Planta 14
28020- MADRID

Era autonomoan funtzionatzen duen zerbitzu horrek zuzentzen zaizkion idatzizko kexak gehienez ere 2 hilabetetan erantzun eta ebatziko ditu ondorengo legeak betez: ECO/734/2004 Legea, martxoaren 11koa, eta 44/2002 Legea, azaroaren 22koa.

Erreklamazio Zerbitzuaren bidea agortuta, erreklamatuak kexa, Aseguratuaren eta Pentsio Planen Parte-hartzailearen Defentsarako Ordezkaritzaren aurrean (Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari atxikia) aurkeztu ahal izango du; haren helbidea honako hau da:

Pº de la Castellana, 44
28046- MADRID

SALBUESPENAK

Ondorengo gertakariak estalduratik salbuetsita geratuko dira:

A) Baliogabetzearen zergatia egiaztatuko duen dokumentazioa aurkeztuz frogatzen ez den edozein arrazoi.

B) Beste batek Aseguratuari edo Aseguratuari ordaindu ahal izango dizkien kalte-galeren zenbatekoak.

C) Aseguratuaren ekintzak:

1. **Aseguratuak bidaiarako ezinbestekoa den edozein dokumentu ez aurkezteak (pasaportea, aire-txartelak, bisatuak, txertatze-ziurtagiriak...), justifikatu gabeko arrazoientatik bisatuak ez ematea salbu, baldin eta Aseguratuak beharrezko kudeaketak egin baditu hura emateko epean barruan eta ezarritako moduan.**
2. **Aseguratuak nahita eragindakoak.**
3. **Engainuzko ekintzak, nor bere buruari egindako lesioak edo suizidioa.**
4. **Jatorria zuzenki gertatzen dena, arduragabekeria larrian edo delitu-ekintzen ondoriozko ekintza batean dutenak.**

5. Aseguratua honako hauen eraginpean izanik gertatzen den edozein istripu: alkoholdun edariak, drogak, estupefazianteak, psicotropikoak, bizigarriak eta antzeko beste substantzia batzuk.

Eragin hori erabakitzeke, istripu-mota den alde batera utzita, ez beharra gertatzen den unean motordun ibilgailuen zirkulazioaren eta bide-segurtasuneko arloan aplikagarria den legeriak finkatutako mugak errespetatuko dira.

D) Ekitaldiak:

1. Gerra aldarrikatuak edo aldarrikatu gabeak, matxinadak, terrorismo ekintzak, erradioaktibitate-efektua, herritarren mugimenduak, mugen itxiera, bai eta debeku ofizialak kontzienteki ez betetzea ere.
2. Edozein natura-hondamendi, naturaren ondorengo fenomenoetako batzuk, esaterako: lurrikarak eta itsasikarak, aparteko uholdeak (itsas denboraleak barne), sumendien erupzioak, ekaitz zikloniko ezohikoa (135 km/h baino abiadura handiagoko haize-ufada apartekoak barne, tornadoak, suteak eta ekaitzak: atmosferaren aldaketa bortitza dakarren meteorologia-fenomenoa, tximistak, trumoiak, tximistargiak, haizea eta euri-jasa, elurra edo txingorra.)
3. Berrogeialdia, Aseguratua tratatzen ari den medikuaren aginduei jarraiki egiten ari den Berrogeialdia salbu, epidemiak edo kutsadura helmuga-herrialdean.
4. Ekitaldiak bertan behera uztea, esaterako: kirolekoak, kulturalak, sozialak edo aisialdi eta aisiakoak, ekitaldiko antolatzaileak berak bertan behera utzitakoak salbu, frogagarriak direnak dagokion egiaztagiriarekin, baldin eta bidaia egiteko arrazoi nagusia bertan izatea bada; halaber, Aseguratzailleak Aseguratua ekitaldira joateko asmoa duela frogatzen duen dokumentazioa eskatuko du, adibidez: sarrerak, erreserbak edo ekitaldiaren data zehatza erakusten duten izen-emateak.
5. Garraiobide-zerbitzua (aldi baterakoa edo ez) kentzea fabrikatzaileak hala eskatuta edo agintari zibilek edo portu-agintariek hala eskatuta.
6. Jatorria greben ondoriozkoa bada.
7. Jatorria garraiobideak izandako akats edo matxura dutenak (elur-jausi, elur edo uholdeengatik errepide edo trenbideetan sortutako kalteak ez direnak) aseguruak kontratatzeke edo bidaia erreserbatzeko unean edota egonaldia edo antzekoren bat aurrez jakiten denean, honako hau frogatzen denean salbu: garraiobidearen matxurarengatik edo akatsarengatik

hegaldia bertan behera uztea eragiten duenean, kontratatutako hegaldia irteteko aireportura heltzeko hautatutako garraiobidea izateagatik. Aseguratzailleak beharrezko dokumentazioa eskatuko du arrazoi horrek utzi duela bertan behera frogatzeko (garabiaren parte, segurtasun-indarren atestatua, edo aireportura heltzeko erabilitako garraio-enpresaren frogagiria), eta bertan behera uztea ekarri duen gertakariaren data eta ordua ere jarri beharko ditu.

8. Bidaia egiteko behar adina parte-hartzaile/erreserba ez izatea edo Overbooking-a izatea.

9. Porrot, ordainketa-etete, kontratatutako aseguruari lotutako zerbitzuko hornitzailearen kontratua desagertu edo ez-betetzetik eragindakoak.

10. Ustekabekorik ez izatea edo bidaiatzeko gogorik ez izatea, besterik gabe.

E) Lan/ finantza egoera

1. Aseguratuaren lan edo/eta opor baimenak aldatzea, aseguratua enplegatuta dagoen enpresak aldebakarrez sortutakoak salbu.

2. Aseguratuaren ekonomia eta finantza egoeretan izandako aldaketak, kasu hauetan izan ezik:

- Bidaia kontratatu zutenean, sei hilabeteko lan mugagabea izan duten eta langabezian geratuko ziren egoeraren jabe ez ziren besteen konturako langileen langabezia.

- Beste enpresa batean lanean hastea, baldin eta hori aseguruak kontratatu ondoren gertatzen bada eta bidaia kontratatutako datan haren berririk ez bazen.

- Bidaia kontratatutako dataren ondoren jakinarazitako lan-kontratuaren luzapena.

- Aseguratua nahitaez bere bizilekutik at joan behar izatea lan-arrazoiengatik, hiru hilabete baino gehiagorako, eta bere ohiko bizilekutik 300 kilometro baino gehiagora.

F) Gaixotasunak:

1. Aurretik zeudenak: Aseguratuaren gaixotasun kronikoen edo aurretik zituen gaixotasunen ondoriozkoak, baldin eta ezustean larriagotzen badira eta horrek bidaia egitea eragozten badu.

Aseguratutako edozeinen gaixotasun kronikoak edo aurretik zituen gaixotasunak, eta haiek behin egonkortuta, deskonpentsazioak edo larriagotzeak eragin dituztenak, poliza kontratatu aurreko 30 egunetan.

2. Aseguratuak mediku-perituaren bisita jaso nahi ez duenean eta aseguratzailleak peritu horren beharra dagoela erabakitzen duenean.

3. Bidaiaren xedea honako hau denean: tratamendu estetikoa, sendabide bat, txertoa ez hartzea edo hura ez hartzeko gomendioa, gomendatutako prebentziozko senda-tratamenduarekin jarraitzea ezinezkoa denean zenbait jomugatan, haurdunaldiaren borondatezko etetea, alkoholismoaren, droga eta estupefazianteen kontsumoaren kontrako tratamenduak, azken horiek mediku baten aginduz eta era egokian kontsumitzen ez baditu behintzat.

G. Ustekabekorik ez izatea edo bidaiatzeko gogorik ez izatea, besterik gabe.